INFORMAZIO OHARRA

# Iñaki Martínez de Luna, Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria 2023

- *Arabako soziologo eta ikertzaileak Eusko Ikaskuntzaren saria jasoko du*
- *Epaimahaiak munduko hizkuntza gutxituekin duen konpromisoaren baitan euskarari eskaini dion aparteko dedikazioa nabarmendu du*

**Gasteiz, 2023ko urriak 27**. Iñaki Martínez de Luna (Vitoria-Gasteiz, 1950) soziologo eta Soziolinguistika arloko ikertzaileak irabazi du aurten Manuel Lekuona Saria, Eusko Ikaskuntzak 1983an sortua, euskal kulturaren alde egindako lanagatik pertsona ospetsuak aintzatesteko.

Soziologian doktore da Deustuko Unibertsitatean, eta, ia berrogei urtean zehar garrantzi handiko ikerketak zuzendu ditu, batetik, euskara biziberritzeko prozesuaren ezagutza zientifikoan sakontzeko (Arrue, ikasleen hizkuntza-erabilerari buruzkoa; EGOD, euskarari buruzko oinarrizko diskurtsoak aztertzekoa; eta EAS, euskararen adierazleen sistema diseinatzekoa); eta, bestetik, euskal gizarte-errealitateari buruzko ikerketak zuzendu ditu (esaterako, identitateari eta kulturari buruz Eusko Jaurlaritzarekin eta Eusko Ikaskuntzarekin 2007an garatutakoa).

Iñaki Martinez de Lunak jarduera zientifikoa eta Euskal Herriaren garapenarekiko konpromiso aktiboa uztartu ditu. Horrela azpimarratu dute epaimahai instituzionala osatzen duten ondorengo erakundeetako ordezkariek: Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa, Eresbil-Musika Euskal Artxoa, Euskal Kultur Erakundea, Etxepare Euskal Institutua, Euskalerriko Adiskideen Elkartea, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua, UNESCO Etxea eta Eusko Ikaskuntza bera. Horren adierazle dira bai tokiko eremuan egindako lanak, bai ikerketa eta ikerketa taldeetan egindakoak: Eusko Ikaskuntzan, Euskaltzaindian, Euskal Herriko Unibertsitatean, Garabiden edo Soziolinguistika Klusterran. Azken horretan, gainera, haren sortzailea eta lehen lehendakaria izan zen eta *Bat* aldizkariaren zuzendaria ere. Azpimarratzekoa da, halaber, Euskaltzaleen Topagunearen baitan sortutako Topalabe hausnarketa-taldean izandako lidergoa, balio handiko ekarpenak egin dituena, hala nola "Berrikasi eta Berrikusi" (2015) eta "Berrindartu eta jauzi" (2020) txostenak.

Bere curriculum zabalak berrikuntzaren aldeko bokazio argia erakusten du, eremu ezezagunei heldu eta sinergiak sortzeko grina. Zentzu

horretan, bere ekarpena euskara biziberritzeko prozesuaren inguruko egungo lankidetza-giroaren baitan kokatzen da.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteko arduraduna izan da 1986tik 2015era, eta UPV/EHUko irakasle ondokoa 1989tik 2015era. Arabako Foru Aldundiko, Euskararen Erakunde Publikoa-Office Publique de la Langue Basque erakundeko eta Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeko kide izan da, baita Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) azpibatzordearen zuzendaria ere. Euskaltzain urgazlea da, eta gaur egun "Euskararen Biziberritza Araban" proiektua koordinatzen du bere baitan. Araban euskararen alde egin du lan handia, Gasteizko GEU elkarteak egindako jarduerak horren erakusle izanik, elkarte horretako presidente izan baitzen 2013 eta 2015 artean.

Ondorioz, 2023ko Manuel Lekuona Sariaren Epaimahaiak hurrengoa nabarmendu du: "Iñaki Martínez de Lunak aparteko dedikazioa du gure hizkuntzak gainditu behar dituen erronkei eta bere biziraupena bermatzeko baliatu behar dituen aukerei buruzko hausnarketan eta ekintzan", mundu osoko hizkuntza gutxituekin duen konpromisoaren baitan ikuspegi ireki eta mugarik gabe.

Remigio Mendiburuk sortutako brontzezko eskultura, Manuel Lekuona saria irudikatzen duenak, ekitaldi publiko batean emango zaio, oraindik zehaztu gabe dagoen egunean.

**Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria eskuratu dutenen zerrenda:**

| | |
|---|---|
| 2023: Iñaki Martínez de Luna | 2002: Armando Llanos Ortiz de Landaluze |
| 2022: Enkarni Genua | 2001: José Ignacio Tellechea |
| 2021: Jon Bagüés | 2000: José Miguel Azaola |
| 2020: Jose Ramon Etxebarria | 1999: Piarres Charritton |
| 2019: Xabier Amuriza | 1998: José María Jimeno Jurío |
| 2018: Mari-Jose Azurmendi | 1997: Micaela Portilla Vitoria |
| 2017: Fermín Leizaola | 1996: Jorge Oteiza Embil |
| 2016: Jean-Louis Davant Iratzabal | 1995: Adrián Celaya Ibarra |
| 2015: Joan Mari Torrealdai Nabea | 1994: Xabier Diharce "Iratzeder" |
| 2014: Antxon Aguirre Sorondo | 1993: Francisco Salinas Quijada |

| | |
|---|---|
| 2012: Soledad de Silva y Verástegui | 1992: Bernardo Estornés Lasa |
| 2011: José Luis Ansorena Miranda | 1991: Carlos Santamaría Ansa |
| 2010: Jose Antonio Arana Martixa | 1990: Gerardo López de Guereñu Galarraga |
| 2009: Txomin Peillen | 1989: Eugène Goyheneche |
| 2008: Montxo Armendáriz | 1988: Manuel Laborde |
| 2007: Sabin Salaberri Urzelai | 1987: Justo Gárate |
| 2006: Menchu Gal Orendain | 1986: Andrés de Mañaricua y Nuere |
| 2005: Elías Amézaga Urlézaga | 1985: P. Jorge de Riezu |
| 2004: Jean Haritschelhar | 1984: Odón Apraiz |
| 2003: Jesus Atxa Agirre | 1983: Manuel Lekuona |

Informazio gehiago / En savoir plus
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

EUSKO IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

NOTE INFORMATIVE

# Iñaki Martínez de Luna, lauréat du prix Manuel Lekuona Eusko Ikaskuntza 2023

- *Le sociologue et chercheur d'Alava recevra le prix d'Eusko Ikaskuntza*

- *Le jury a souligné son dévouement extraordinaire à la langue basque dans le cadre de son engagement envers les langues minoritaires dans le monde*

**À Vitoria-Gasteiz, le 27 octobre 2023.** Iñaki Martínez de Luna (Vitoria-Gasteiz, 1950), sociologue et chercheur en sociolinguistique, a remporté cette année le prix Manuel Lekuona, créé par Eusko Ikaskuntza en 1983, en reconnaissance de personnalités pour leur travail en faveur de la culture basque.

Docteur en sociologie à l'Université de Deusto, il a mené pendant près de quarante ans des recherches de grande envergure pour approfondir la connaissance scientifique du processus de revitalisation de la langue basque (Arrue sur l'utilisation linguistique des élèves, EGOD sur l'étude des discours de base sur la langue basque et EAS sur la conception du système d'indicateurs de la langue basque) et des études sur la réalité sociale basque (comme celle développée en 2007 avec le Gouvernement basque et Eusko Ikaskuntza sur l'identité et la culture).

Iñaki Martinez de Luna a combine une activité scientifique ainsi qu'un engagement actif pour le développement du Pays Basque. C'est ce qu'ont souligné les représentants des institutions qui composent le jury institutionnel : la Fondation Jose Miguel de Barandiaran, Eresbil-Musika Euskal Artxoa, l'Institut culturel basque, l'Institut Basque Etxepare, la Société Basque des Amis du Pays, Euskarabidea-Institut Navarro de la Langue Basque, UNESCO Etxea et Eusko Ikaskuntza, elle-même. Les travaux réalisés tant au niveau local que dans les groupes de recherche et de recherche : Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, l'Université du Pays Basque, Garabide ou le Cluster de Sociolinguistique en témoignent. Il est également le fondateur de ce dernier, son premier président et directeur du magazine *Bat*. Il convient également de souligner son leadership au sein du groupe de réflexion Topalabe, créé au sein du Forum Euskaltzaleen Topalabe, qui a apporté des contributions précieuses telles que les rapports "Berrikasi eta Berrikusi" (2015) et "Berrindartu eta salto" (2020).

Informazio gehiago / En savoir plus
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

Son vaste CV démontre une vocation claire à l'innovation, un désir d'aborder des domaines inconnus et de créer des synergies. En ce sens, sa contribution s'inscrit dans le cadre du climat actuel de collaboration autour du processus de revitalisation de la langue basque.

Il a été responsable du Cabinet de prospection sociologique de la présidence du Gouvernement basque de 1986 à 2015 et professeur adjoint de l'UPV/EHU de 1989 à 2015. Il a été membre de la Députation Forale d'Alava, de l'Office Public de la Langue Basque et du Conseil Consultatif de la Langue Basque du Gouvernement Basque, ainsi que directeur de la sous-commission Plan d'Action pour la Promotion de la Langue Basque (ESEP). Membre correspondant, il coordonne actuellement en son sein le projet "Euskaren Biziberritza Araban". Il a travaillé en faveur de la langue basque à Alava, comme en témoignent les activités menées par l'association GEU de Gasteiz, dont il a été président de 2013 à 2015.

En conséquence, le jury du Prix Manuel Lekuona 2023 a souligné que « Iñaki Martínez de Luna a un dévouement extraordinaire à la réflexion et à l'action sur les défis que doit relever notre langue et les opportunités qu'elle doit saisir pour assurer sa survie », sans perspectives ouvertes et sans limites dans son engagement envers les langues minoritaires du monde entier.

La statuette en bronze signée Remigio Mendiburu qui incarne le prix Manuel Lekuona lui sera remise lors d'une cérémonie publique dont la date reste à déterminer.

**Liste des personnes lauréats par le Prix Manuel Lekuona d'Eusko Ikaskuntza:**

| | |
|---|---|
| 2023: Iñaki Martínez de Luna | 2002: Armando Llanos Ortiz de Landaluze |
| 2022: Enkarni Genua | 2001: José Ignacio Tellechea |
| 2021: Jon Bagüés | 2000: José Miguel Azaola |
| 2020: Jose Ramon Etxebarria | 1999: Piarres Charritton |
| 2019: Xabier Amuriza | 1998: José María Jimeno Jurío |
| 2018: Mari-Jose Azurmendi | 1997: Micaela Portilla Vitoria |
| 2017: Fermín Leizaola | 1996: Jorge Oteiza Embil |
| 2016: Jean-Louis Davant Iratzabal | 1995: Adrián Celaya Ibarra |

Informazio gehiago / En savoir plus
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

| | |
|---|---|
| 2015: Joan Mari Torrealdai Nabea | 1994: Xabier Diharce "Iratzeder" |
| 2014: Antxon Aguirre Sorondo | 1993: Francisco Salinas Quijada |
| 2012: Soledad de Silva y Verástegui | 1992: Bernardo Estornés Lasa |
| 2011: José Luis Ansorena Miranda | 1991: Carlos Santamaría Ansa |
| 2010: Jose Antonio Arana Martixa | 1990: Gerardo López de Guereñu Galarraga |
| 2009: Txomin Peillen | 1989: Eugène Goyheneche |
| 2008: Montxo Armendáriz | 1988: Manuel Laborde |
| 2007: Sabin Salaberri Urzelai | 1987: Justo Gárate |
| 2006: Menchu Gal Orendain | 1986: Andrés de Mañaricua y Nuere |
| 2005: Elías Amézaga Urlézaga | 1985: P. Jorge de Riezu |
| 2004: Jean Haritschelhar | 1984: Odón Apraiz |
| 2003: Jesus Atxa Agirre | 1983: Manuel Lekuona |

Informazio gehiago / En savoir plus
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)